

hitzaurrea

Munduko bazter guztiak nahastu dituen pandemia batek markatu du 2020. urtea. Lau hilabetez alarma egoeran, 2.200 pertsona baino gehiago hil dira COVID-19aren ondorioz Euskal Herrian, milaka eta milaka herritar kutsatuta. Osasun zentroak, ospitaleak eta osasun langileak beren onena eman dute, gaixoen oldea zeuzkaten baliabideek ahalbidetu dizkieten modurik onenean artatzen.

Adinekoen kolektiboa bereziki jo du pandemiak, hildako gehien-gehienak 70 urtetik gorakoak izan baitira. Kutsatu ez direnentzat ere izan da ondorio larririk: gure ohiko bizimodua erabat irauli du COVID-19ak. Etxe barruetan konfinamendu luzea, ikastetxeak, saltoki eta enpresa ugari itxita, kaleak ia hutsik, senitartekoak eta lagunak elkar ikusi gabe hilabeteak igaro dira eta herritar asko lanik gabe gelditu da, eta, ondorioz, familia asko egoera ekonomiko larrian geratu da.

Ezohiko urtea, inolako zalantzarik gabe. Nolanahi ere, "Hernani" urtekariak ez dio historiarekin duen urteroko hitzorduari uko egin eta, aurten ere, eskuartean duzue 26.a. Betiko legez, gure herriaren arrastoari segika, gai interesgarri anitz plazaratzen ditu.

Beste gai interesgarrien artean, Hernanik azken bi mendeotan izandako migrazio-mugimenduak, Euskal Herriko historian mugarri bihurtu zen Martin Zabaletaren lorpena, egungo Hernaniren nortasuna zizelkatu zuten industriren ikerketa historikoa, inudeen inguruko ikerketa, hernaniar askok euskararen alde eta gure kulturaren alde egin zuten borroka baten lekuko izan den Langile Ikastolaren historia... Eta, nola ez, memoria hurbilagoaren errepasoa egiteko parada ere izango dugu irakurleok.

Azkenik, gure herriaren historia-oroimenean gordetze-ko balioko duen urtekari honetan parte hartu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet.